

Eriotza

Juana Ibarbourou
Euskaratzailea: Igotz

Nundik ator, esain, ereslari ori?
Nundik ator, esain bai, ondo ixil ori?
Txapiñez oiñak ta jantzi gorritz soiña,
Ta ur txit ixilkorrek arnasan igeri?

Nora oa, eize-txakurrak ingurun,
Atz-bete laiñotzar ezpan-gain doala,
Aize zaurituak ixildu daitezcan
Eta akara-pillak, eresge, askatu?

Nora oa, jazint-itzaletz betea,
Goiz euritsuan ta illargi estali,
Basauntz igeskor ur-egarri bagarik,
Uso txurditua ganduzko usategin?

Norantz oa, esain, urrutiko ispillu
Dizdiz-istarien makopean zear
Maitasun menpeko jarraigoarekin
Ta eure arrikatz ikur ezkutukin?

Nungo arepillo, elbitz-metarantza
Abil, egunen ibai-ertzari jarraituz?
A, eiztari gordin, ikara eziña!,
Ez al nok oindiño euretzako gura?